

Prentsa-oharra

Makineriaren mantentze aktiboa

- ▶ *IK4-TEKNIKERek Ibermáticarekin batera proposatzen duen irtenbide berriak makina-erreminten osasuna ezagutzeko balioko du, bai eta funtzionamendu irregularrak aurretiaz hauteman ahal izateko ere*
- ▶ *Eragiketarekin eta mantentze-lanekin zerikusia daukaten erabakiak hartzen lagunduko du sistema horrek, eta aurrea hartu ahalko zaio pieza akastunen fabrikazioari*

(Eibar, 2019ko maiatzak 30).- Makina-erremintaren sektoreak geroz eta zehaztasun hobeko ekipoak behar ditu, balio gehigarriarekin, baina, horrez gain, sistemak garatzea behar du mantentzerako. Ezinbesteko jarduera kritikoa da hori, ekipoen funtzionamendua mantentzeko eta, ondorioz, produktibitatea.

Makina-erremintek datu kopuru handia jasotzeak, bidaltzeak eta aztertzeak informazio baliagarria ematen du produktibitatea handitzen laguntzeko.

Makinaren kontrolaren eta sentsoreen datuak lortzeari esker, informazioa lortzen da etengabe eta unean elementu guztien egoerari buruz: makinaren osagaiak, ekoizpen-prozesuak, ekoiztako piezen kalitatea eta produkzioaren ingurune aldakorra.

Datuetan oinarritutako aurreikuspen erduek, berriz, makinaren portaera aurreikusten laguntzen dute, ekoizpena eteten duten programatu gabeko matxurak eta galera ekonomikoak murrizteko.

Gainera, azpiegitura behar da datu guztiak lortzeko, prozesatzeko, biltegitratzeko eta ustiatzeko, eta osagaien eta makinaren egoera errealarekin lotzeko. Horrela, erabiltzean duen portaera ezagutzen da eta diagnostikorako gaitasuna eta sistemaren aurreikuspena hobetzen da.

Datuen egoeran eta kudeaketan oinarritutako monitorizazioa

Ibermáticarekin batera, Informazio eta Komunikazio Teknologietako (IKT) zerbitzuen konpainiak, IK4-TEKNIKERek garatu du **datuen monitorizazio eta kudeaketarako soluzio bat**. Helburua da makina-erreminten osagai kritikoen egoera ezagutzea eta erabilera arrotzeko egoerak goiz hautematea.



Erremintaren xedea da, batetik, ekipoen ekoizleek bezeroei mantentze aurreratua eskaintzea, eta, bestetik, amaierako erabiltzaileek ekipoa ondo funtzionatzen dutela egiaztatzea.

Gainera, industria-enpresen gaitasunera egokitzen da soluzioa konektagarritasunari eta integrazioari dagokionez, eta informazio guztia lor eta interpreta dezake horrek balio erantsia ematen badio makinaren osasun-egoerari.

IK4-TEKNIKERek makina-test batzuk egin nahi ditu kontrolen eta sentsoreen (kanpokoak edo barrukoak izan) seinaleak jasotzeko. Oso errazak eta azkarrak dira, eta makinaren egoera ezagutzea dakarte. Horretarako, hainbat parametrok denbora igaro ahala duten bilakaerari

produktu-ingeniaritzan eta IKTetan), eta abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen du horrek.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel. 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Eider Lazkano

eider@guk.es | Tel. 620 807 344

////////////////////////////////////